

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 59/2017 Erabakia, otsailaren 7koa, erantzuten diena aurkeztutako alegazioei eta onartzen duena ES2110021 “Guardiako aintzirak” kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) eta “Guardiako Aintziraguneko” biotopo babestuaren gidalerro eta neurrien behin betiko agiria, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 1eko 34/2016 Dekretuan xedatutakoaren ondorioetarako**

Eusko Jaurlaritzaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko erabakien bitartez, Arabako Foru Aldundiarekin bat etorritik, Arabako 25 gune proposatu ziren Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izendatzeko. Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark onetsi egin zuen, 2006/613/EE Erabakiaren bitartez, eskualde biogeografiko mediterraneoari dagozkion Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrenda, zeinean Guardiako aintziren Batasunaren Garrantzizko Lekua (ES2110021 BGL) ere sartzen baitzen.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren irailaren 19ko 417/1995 Dekretuaren bidez, biotopo babestu izendatu ziren Guardiako Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul aintzirak. Dekretu hori sailburu beraren irailaren 29ko 255/1998 Dekretuak aldatu zuen, biotopoaren eremu horretan Muscoko aintzira ere sartzeko.

Ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko natura babestekoak, zeinaren testu bateratua apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuak onartu zuen, bere 13. artikuluan Natura 2000 Sarea (Batasunaren garrantzizko lekuak —BGL—, hegaztientzako babes bereziko eremuak —HBBE— eta kontserbazio bereziko eremuak —KBE—) sartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko natura gune babestuen sarean beste kategoriatan baten modura.

Bat etorritik Kontseiluaren maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauak, habitat naturalak eta basa fauna eta landaredia zaintzeari buruzkoak, 4. artikuluan eta abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura ondare eta biodibertsitatearenak, 44. eta 45. artikuluetan xedatutakoarekin, autonomia erkidegoek, jendaurrean jartzeko prozeduraren ondoren, BGL guztiak kontserbazio bereziko eremu (KBE) aitortuko dituzte, eta beharrezko zaintze neurriak ezarriko dituzte, eremu horietan dauden habitat natural moten eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzuten dietenak. Kontserbazio neurriek berekin ekarriko dituzte kudeatze plan edo tresnak eta erregelamendu, administrazio edo kontratu neurriak.

Hala, bada, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren martxoaren 1eko 34/2016 Dekretuaren bidez, ES2110021 Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu zen Guardiako aintziren konplexu babestuko biotopoa, bai eta haren araudia eta mugak aldatu ere. Onartu ziren, halaber, eremu horiek onik zaintzeko neurriak (EHAA, 108. zk.a, 2016ko ekainaren 8koa).

34/2016 Dekretu horretan, 3.4 artikuluan, honela dio: “Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzaren Erabakiaren bidez, dekretu honen eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak eremu hori kudeatzeko onartu dituen zuzentarauak eta neurriak argitaratuko dira, Natura kontserbatzeko Legearen testu bateratuaren 22.5 artikuluekin bat etorritik.”

KBE izentzeko eta biotopo babestuaren araudia aldatzeko prozesu honetan, Arabako Foru Aldundiak, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren abuztuaren 9ko 202/2016 Foru

Aginduaren bidez, hasierako onarpena eman zion gune bi horiek kudeatzeko zuzentarau eta neurrien agiriari, zeina entzunaldiko izapidean eta jendaurrean jarri baitzen bi hilabetez.

Jendaurrean egon den eta entzunaldiko izapideak iraun duen bitartean, alegazio idazki bakar bat aurkeztu da, hain zuzen ere erakunde honek:

– Unión Agroganadera de Álava-Arabako Nekazarien Elkartea (UAGA)

Agiria aztertuta, Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalak txostena idatzi zuen erakunde horrek aurkeztutako alegazio eta iradokizunei erantzunez, haie-tako batzuk onartuz eta, ondorioz, kudeaketa agiriari beste idazketa bat emanaz.

Erabaki honek osorik onartzen du aipatutako txostena.

Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalaren txostena ikusi da. Txosten horretan aipatutako alegazioei erantzuten dien agiria jasotzen da, bai eta proposatu ere babestutako naturagune horren kudeaketa zuzentarau eta neurriak behin betiko onartzea ere.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

**LEHENENGOA.** Erantzutea Guardiako aintziretako KBeko (ES2110021 kontserbazio bereziko eremua) eta Guardiako aintzira konplexu babestutako biotopoko "zuzentarauak eta neurriak" izeneko hasierako agiria jendaurrean egon den eta haren entzunaldi izapideak iraun duen bitartean aurkeztutako alegazioei, Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalaren txostenak adierazitakoak bere horretan baietsiz edo ezetsiz. Txosten hori bere egiten du oso-osorik ebazpen honek, eta haren edukia eta ebazpen hau batera jakinaraziko zaizkie erakunde interesdunari.

**BIGARRENA.** Behin betiko onartzea Guardiako aintziretako KBeko (ES2110021 kontserbazio bereziko eremua) eta Guardiako aintzira konplexu babestutako biotopoko kudeaketa zuzentarau eta neurrien agiria. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko martxoaren 1eko 34/2016 Dekretuak 3.4 artikuluan eta azken xedapenetatik lehenengoan xedatutakoarekin bat etorri (EHAA, 108. zk.a, 2016ko ekainaren 8a), kudeaketa agiriari III. eranskin gisa atxikitzeko.

**HIRUGARRENA.** Kudeaketa zuzentarauak eta neurriak agirian jasotako kudeaketa neurriak gauzatzeko zuzkidura ekonomikoak kasuan kasuko aurrekontuekin onartuko den aurrekontu erabilgarria egotearen baldintzapean daude, eta, edozein kasutan ere, agiri horretako kalkulu ekonomikoa 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan aipatutako kofinantzaketa komunitarioari dagokionez beharrezko irizitakorako egiten da.

**LAUGARRENA.** Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

**BOSGARRENA.** Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 7a

*Diputatu nagusiaordea*


**M. PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*


**AMAIA BARREDO MARTIN**




**ES2110021**  
**LAGUARDIAKO AINTZIRAK**  
**Kontserbazio Bereziko Eremua KBE**

**LAGUARDIAKO AINTZIRAGUNEko**  
**Biotopo Babestua**

**III. Eranskina**  
**Kudeaketa Gidalerroak eta Neurriak**



Ingurumen eta Hirigintza Saila  
Arabako Foru Aldundia  
2017ko urtarrila



## **AURKIBIDEA**

---

### **1. SARRERA**

### **2. KONTSERBAZIO GIDALERROAK ETA NEURRIAK, FUNTSEZKO ELEMENTU EDO KUDEAKETA XEDEEI BEGIRA**

2.1.UR GEZAKO HABITATAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK

2.2.AINTZIRA ENDORREIKOAK ETA HABITATAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK

2.3.LARREAK ETA SASSTRAKAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK

2.4.ANFIBIOAK

### **3. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK**

3.1.BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA

3.2.KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTAIDETZA ETA HERRITARREN KONTZIENTZIA

3.3.GOBERNAMENDUA

3.4.ZEHARKAKO BESTE JARDUERA BATZUK

### **4. JARDUEREN KOSTUAREN GUTXI GORABEHERAKO KALKULU EKONOMIKOA**

## 1. SARRERA

Euskal Herriko natura babesteko Legeak –zeinaren testu bateratua honen bidez onartu baitzen: 1/2012 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa– mekanismo jakin bat zehazten du Europako Erkidegoko araudiaren babesean sortutako espazioen babes figurak lantzeko, zehazki, Natura 2000 Sarean jasotako naturagune babestuei heltzeko.

Horrela, 5. idatz zatiko 22. artikuluan, Legeak honako hau ezartzen du: *"Lurralde historikoetako foru organoek kudeaketa planak egingo dituzte, kontserbazio helburuak oinarri hartuta, bere baitan honako hauek jasoko dituztenak: eremuak zaintze egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalen eta espezieen habitaten hondatzea ekiditeko neurri egokiak, hala nola gune hauen izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dizkieten aldaketak ekiditeko neurriak".*

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren martxoaren 3ko 34/2016 Dekretuaren bidez, ES2110021 Kontserbazio Bereziko Eremu (KEB) gisa izendatu zen Laguardiako aintziren konplexu endorreikoa, eta kontserbazio neurriak onartu ziren harako. Era berean, 34/2016 Dekretu horren bidez, araudia aldatu zen, bai eta Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestu gisa aitortutako arloaren mugaketa ere.

Dokumentu honetan, «Laguardiako Aintzirak» ES2110021 KBEaren eta «Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestuaren **Kudeaketa Gidalerroak eta Neurriak** ezartzen dira, 34/2016 Dekretu horretan ezarritako kontserbazio helburuetan oinarrituta.

## 2. KONTSERBAZIO GIDALERROAK ETA NEURRIAK, FUNTSEZKO ELEMENTU EDO KUDEAKETA XEDEEI BEGIRA

### 2.1. UR GEZAKO HABITATAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK

<b>1. Azken helburua</b>	<b>Prao de la Paul aintzirako ur gezako habitaten ahalmen ekologikoa berreskuratzea (erriberako landaredia orla barne), hezegunearen egoera ekologiko ona lortzeko eta, horrela, intereseko hegazti eta ugaztunen espezieentzako habitataren egokimena hobetzeko.</b>
<b>1.1 helburu operatiboa</b>	<b>Nabarmen murriztea karramarro amerikarra eta arrain exotikoen espezieak dakartzaten eragin negatiboak.</b>
<b>Jarduerak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ur horniduraren puntua hobetzea Prao de la Pauleko urmaelera, San Julian ibaiaren bilketaren sarrera inguruan eta, horretarako, ibaiertzera eta landareztatzeraino lotunerako 15 metro luze duen lurpeko tutua eraikitzea, tamariz eta ihidien landaketaren bidez; halaber, trantsizio eremua sortzea, legar hondoarekin, iragaztea - dekantazioa hobea izateko.</li> <li>2. Ur maila kontrolatzeko sistema ezartzea Prao de la Paul urmaelean, eta, horretarako, ponpaketa instalazio bat eta sarrerarako eta irteerarako konportak baliatzea, neguan eta udaberrian gehieneko ur mailak, uda amaieran lehorketa eta udazkenean urperatzea dituen erregimen fluktuatzailea lortzeko.</li> <li>3. Hala badagokio, aintzira hodian hondoko sedimentuen aldian behingo garbiketa aztertzea eta gauzatzea eta, horretarako, urmaelaren lehorketa/hustuketa uneak aprobetxatzea.</li> <li>4. Espezie aloktonoen populazioen azterketak egitea.</li> <li>5. Arrainen eta ornogabe aloktonoen espezieen biomasa gutxitzea, harrapaketa eta hilketako kanpainen bidez.</li> <li>6. Arabako Errioxako biztanleen artean, ingurumen hezkuntza bereziaren inguruko kanpaina bat egitea, Prao de la Paulen eta beste edozein habitat motatan espezie inbaditzaile aloktonoak sartzek dakartzan ingurumen arazo serioei buruz.</li> <li>7. Arabako beste hezegune batzuetatik datozen basa eta lohien ekarpen selektiboa aztertzea eta gauzatzea, hala badagokio, helofitoen eta intereseko uretako floraren presentzia onarekin.</li> </ol>
<b>1.2 helburu operatiboa</b>	<b>Prao de la Paulen inguruan mahastiaren gehiengo landaketak eragindako mehatxu faktoreak saihestea eta murriztea.</b>
<b>Jarduerak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>8. Arro hidrografikoetan dauden partzela eta/edo mahastizaintzako eta ardogintzako ustiapen bakoitzerako birmoldaketa plan berezia idaztea, abiapuntuko egoeraren analisiarekin, lortu nahi diren helburuen definizioarekin eta birmoldatzeko beharrezko denboraren eta mahastizaintza jarduerari mugak ezartzeko kasuan konpentsazio ekonomiko egokien ezarpenarekin.</li> </ol>

<b>Jarduerak</b>	<p>9. Lurralde kontratu sistema ezartzea, partzela bakoitzerako zehaztasunekin, lau aintziretako arro hidrografikoetan dauden mahastizaintzako eta ardogintzako ustiapenatarako ingurumen neurrien ezarpenean oinarrituta, honako helburu hauekin:</p> <p>a- Fitosanitario eta ongarri ez organikoen erabilera murriztea eta, horretarako, mahasti ekologikoaren, biodinamikoaren edo integratuaren landaketa sistemen ezarpena bilatzea.</p> <p>b- Partzeletan estalki berdeei eustea, behintzat udazkenean eta neguan.</p> <p>c- Mahats parra sistemak ezabatzea eta baso tradizioaletako mahastiak berreskuratzea.</p> <p>d- Maldaren noranzkoan landatutako partzelak eraldatzea, nibel kurben zentzuan landatutako eta landutako partzeletara.</p> <p>e- Partzela, aintziretako ertz eta landaredia naturaleko eremuetan utzitako xirmendu, hondar eta nekazaritza hondakinak bertatik kentzea.</p> <p>f- Harri hormatxoak eta beste elementu tradizional batzuk berreskuratzea, besteak beste, harrizko etxolak edo mahastiak zaintzeko eraikinak.</p>
<b>1.3 helburu operatiboa</b>	<b>Prao de la Paul inguruan landaredia naturalaren orla areagotzea, bai hedadurari dagokionez, bai babes mailari dagokionez.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>10. Gunetik lur, harri eta Prao de la Paulen inguruko partzelen eraikuntza materialak ezabatzea.</p> <p>11. Zuhaitz eta zuhaixka landaketak indartzea, landaredia pantaila gisa, Prao de la Paulen helofitoen orlaren eta bide perimetralaren artean, eragozpenak murrizteko.</p> <p>12. Prao de la Paulen ipar-ekialdeko mugan makalen eta txopoen landaketa duen erriberako basoaren eremu zabala eta konpaktua eratzea eta, horretarako, gaur egun landaredia naturalekoak diren partzelak aprobetxatzea eta bide perimetrala partzela horien kanpo mugatik desbideratzea.</p> <p>13. Lursailen erosketa sustatzea edo akordio bereziak ezartzea jabeekin, gutxienez 20 metroko kudeaketa partekatuko tarte bat lortzeko, landaredia naturalaren kanpoko egungo mugatik edo bide perimetraletik Prao de la Paulen kasuan. Fitosanitarioak eta ongarriak ez aplikatzea bilatuko da, lurra ez lantzea edo landaredia naturala birmoldatzea.</p> <p>14. Pixkanaka aintziraren inguruko zuhaitz eta zuhaixka aloktonoko landaredia ezabatzea eta, horren ordez, erriberako berezko espezieak jartzea.</p>

<b>1.4 helburu operatiboa</b>	<b>Prao de la Paulen inguruan erabilera publikoak eta azpiegiturek eragindako espezie eta habitatei buruzko eraginak murriztea.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>15. Prao de la Paulen behatokia berritzea, ingurumen arloan egokiak diren materialekin eta paisaian eta mugarri geografikoetan fokalizatuago dagoen seinaleztapenarekin.</p> <p>16. Espazio naturaleko interpretazio seinaleztapenaren sistema osatzea, larre erkidegoei buruzko, mahastiaren landaketari eta haren esanahi biologikoari buruzko eta intereseko flora espezieei -besteak beste, orkideak- buruzko panelekin.</p> <p>17. Ibilbide osasungarria prestatzea, aire zabaleko paseo jardueraren onurei buruzko eta Laguardiako nukleoa lau aintzirekin lotzen dituen paisaiaren behaketari buruzko informazio bereziarekin, A-124 errepidearen gaineko seinaleztapena duen paso egokia barne.</p> <p>18. Bideen norabide seinaleztapenaren sistema uniformatzea eta, horretarako, poste kopurua eta seinaleztapen elementuak murriztea.</p> <p>19. Hegaztien behatoki berria gaitzea, eragozpenak saihesteko aintziraren hegoaldeko hegalean.</p> <p>20. Hegoaldeko sarbidean erabilera publikoko azpiegitura berria sartzeari, besteak beste, bizikletak aparkatzeko gailua eta erabilera eta gomendioen karteldegia.</p> <p>21. Landaredia naturalaren gunearen kanporantz bide perimetralaren aldaketa posibleak aztertzea, kudeaketako funtsezko elementu diren hegaztien espezieen nidifikazioarekin gatazka sortu daitekeen arloetan.</p>
<b>1.5 helburu operatiboa</b>	<b>Prao de la Paulen dauden intereseko espezieen populazioen kontserbazio egoerari buruzko ezagutza maila hobetzea, bai eta beste hezegune batzuekiko harremanak ere, hainbat eskalatan.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>22. Lezkari arrunten, lezkari karratxinaren, tximutxaren, txilinporta txikiaren eta murgil handiaren bikoteen urteko zentsuak egitea.</p> <p>23. Erriberako basoko kalitatearen hegazti adierazleen espezieen urteko zentsuak egitea (dilindaria, lepitzulia, pizidoak oro har).</p> <p>24. Mustelidoen espezieen jarraipena egiteko azterlan berezia egitea, bereziki bisoi europarrarena eta igarabarena, Prao de la Paulen dauden igarabena.</p> <p>25. Pausalekuak ezartzea, zingira mirotzarentzat, Prao de la Paulen erdigunerako, aintziraren hondoan finkatutako enborren bidez.</p> <p>26. Prao de la Paulen zuhaitz eroriak kokatzea, azaleratutako aldeekin, ardeidoen pausalekuetarako bide emateko</p> <p>27. Odonatuen populazioak, tximeletak eta/edo intereseko beste espezie ornogabe batzuk eta denboran izan duten bilakaera aztertzea.</p>



**2.2. AINTZIRA ENDORREIKOAK ETA HABITATAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK**

<b>2. Azken helburua</b>	<b>Aintzira endorreikoetan dauden habitat halofiloen kontserbazio egoera ona lortzea.</b>
<b>2.1 helburu operatiboa</b>	<b>Hiru aintzira endorreikoen landaredia orlaren hedapena mantentzea eta areagotzea.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>28. Landaredia halofilorako azalera egokia okupatzen duten harri, zabor edo elementu arrotzak kentzea habitat potentzialeko eremuan.</p> <p>29. Tamariz hesiak landatzea aintzira basoetarantz pertsona eta makinek igarotzeko ohiko gatazka guneetan, ertzetik 5 metroko distantziara.</p> <p>30. Carralogoñoiko ertzean dauden <i>Elaeagnus angustifoliako</i> oinak ezabatzea.</p> <p>31. Carravalsecan dauden egitura artifizialak ezabatzea.</p> <p>32. Lursailen erosketa sustatzea edo akordio zehatzak ezartzea partzela pribatueta jabeekin, KBEak kudeaketa partekatuko edo publikoko gutxieneko 20 metroko tartear hornitzeko, aintziren periferian landaredia naturalaren kanpoko egungo mugatik. Fitosanitarioak eta ongariak ez aplikatzea bilatuko da, lurra ez lantzea eta, ahal dela, landaredia natural birmoldatzea.</p>
<b>2.2 helburu operatiboa</b>	<b>Mahastiaren gehiengo landaketak eta hiru aintzira endorreikoen inguruan lotutako azpiegiturek eragindako mehatxu faktoreak saihestea eta murriztea.</b>
<b>Jarduerak</b>	Aplikagarriak dira 1.2. helburu operatiborako planteatutako kontserbazio neurriak.
<b>2.3 helburu operatiboa</b>	<b>Musco aintzirako funtzionamendu hidrológico naturala berrezartzea.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>33. Kubetaren sedimentuaren egitura eta haren iragazgaitasuna berreskuratzeko neurri egokienei buruzko azterlan berezi aditua egitea, neurri horiek gauzatu.</p> <p>34. Bazkaleku ez halofiloen biomasa ezabatzea udaberrian, uzten bidez, materia organiko guztia alde batera utziz.</p> <p>35. Espezie halofiloen ereintza eta landaketen saioak egitea Muscoko eremurik lehorrenetan, Carralogoñoan eta Carravalsecan dauden espezieen propagulo eta haziekin.</p>
<b>2.4 helburu operatiboa</b>	<b>Carralogoñoiko gozatze fenomenoaren arazoa ebaluatzea eta bereizitako eragin negatiboak zuzentzea.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>36. A-124 errepideko euri uren ebakuazio eta iragazte sistema diseinatzea, Carralogoñoiko arro hidrografikotik kanpora.</p> <p>37. Iragazki berdeko sistema landareztatu eta ezartzea, lezkadi eta erriberako zuhaitzi bidez (tamariza/sahastia), A-124 errepidearen azpiko pasantetik Carralogoñoiko aintzirara sartu aurreko landaredia naturaleko gunera.</p>

<b>2.5 helburu operatiboa</b>	<b>Zehaztasunez ezagutzea habitat halofiloen eta aintziren landaketa murgilduko eraketa floristikoa eta dinamikoa betetze uneetan, eta espazio horiek uretako hegaztientzako duten garrantziari buruzko ezagutza hobetzea.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>38. Komunitate halofiloen garapena jarraitzea, neurrien ezarpenean oinarrituta, eta hasierako faseetan jardutea, 1410 habitataren garapena -besteak beste, <i>Tamarix</i>, <i>Salsola</i>, <i>Atriplex</i> edo beste batzuk- zailtzen duten espezie halotoleranteak bat-batean ez ezartzeko eta, beraz, kalitatezko habitaten hedapenari bide emateko.</p> <p>39. Xehetasun kartografia egitea, 1410 habitata 1510*-etik eta beste batzuetatik bereizteko.</p> <p>40. Gune horren eraketa floristikoa zehaztea, azterlan berezi baten bidez, non mehatxupeko floraren espezieak daudela egiaztatzen baita.</p> <p>41. Uretako makrofitoei buruzko azterlan bereziak egitea betetze uneetan, eta arreta berezia eskaintzea antzina aipatutako espezie arraroak agertzeari (besteak beste, <i>Tolypella salina</i>), gutxienez sei hilean behin, baldintza hidrogikoko egokiak badagoz.</p> <p>42. Erlazio funtzionala duten hezeguneetako beste espazio batzuetako ikertzaile eta kudeatzaileekin informazioa partekatzea (besteak beste, Cañas urmaela Vianan, Nafarroa), eta, horretarako, urrutien dauden hezegune horietan eta Prao de la Paulen zentsuak egiteko data eta teknikan ere koordinazioa bilatzea, elkarri lotutako prozesuak hobeto ulertzeko.</p> <p>43. Laguardiako aintziretan, autonomia mailako edo autonomiaz gaindiko eremuko ikerketa proiektuen garapenari bide ematea, hezegune endorreikoen biologiar buruzko ezagutzak zabaltzeko egin daitezkeenak.</p> <p>28. jarduera ere bada aplikagarria.</p>

**2.3. LARREAK ETA SASTRAKAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK**

<b>3. Azken helburua</b>	<b>Belardi eta sastraken habitaten kontserbazio egoera hobetzea, bai eta horien mendeko fauna espezieena ere.</b>
<b>3.1 helburu operatiboa</b>	<b><i>Brachypodium retusum</i> albiztiak areagotzea, KBE/Biotopo Babestuaren barruan, eta babeseko gune periferikoa.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>44. Kontserbazio egoera onean mantentzea KBEaren eta babeseko gune periferikoaren barruko partzela publikoetan -Laguardiako Udalarenak izan edo beste administrazio batzuenak izan- dauden larre xerofiloen laginak eta, horretarako, soilte selektiborako neurriak aplikatzea.</p> <p>45. Habitat hori soiltearen/ereintzaren bidez berrezartzea eta, horretarako, habitat hori ez duten partzela ez landuetan gero mantentzea, eta Musco eta Carravalseca arteko partzela publikoen gainean eta hezeguneetan desjabetze orlan eginiko jarduketa batzuk berriro zuzentzea.</p>
<b>3.2 helburu operatiboa</b>	<b>Mehatxu faktoreak prebenitzea eta ezabatzea larre eta sastraken gainean.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>46. Batasunaren intereseko larreetako azalerak "balio natural handiko nekazaritzako gune" gisa jasotzea.</p> <p>47. Albizti eta sastraken laginak dituzten jabe pribatuekin ingurumen kontratuen sinadura sustatzea, espazio ireki horiek kontserbazio egoera onean mantentzeko eta mantentze lanek eragindako ingurumeneko kanpo efektu positiboak saritzeko. Kontratu horiek honako konpromiso hauek jaso behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herbizidarik ez aplikatzea, flora inbaditzaileen espezieak baimenez kentzeko salbu.</li> <li>- Larratze estentsiboa egiten bada, hura urtean bi aldiz baino ezin da egin: bat udazkenean eta, bestea, arinagoa, udaberrian.</li> <li>- Ez luberritu eta ez erabili sua.</li> <li>- Ez murriztu azalera azpiegiturak jartzeko, materialak metatzeko edo beste edozein arazoirengatik.</li> <li>- Ez basotu.</li> </ul> <p>48. Babesgune Periferikoen barruan mahastien partzelen mugakideetan marjinak eta arboladi hesiak berreskuratzeko plana egitea, zuhaixka arantzatsuen landaketa eta posalekuen ezarpena barne.</p> <p>49. Elementu tradizionalak berreskuratzea, besteak beste, mahastiak zaintzeko eraikinak eta hormatxoak, eta neurriak sustatzea intereseko faunak eta florak erabiltzeko, KBEaren eta Biotopo Babestuaren eremu osoan.</p>
<b>3.3 helburu operatiboa</b>	<b>Zehatz ezagutzea habitat horien eraketa floristikoa eta horien mendeko hegaztien populazioak.</b>
<b>Jarduerak</b>	50. Hegaztien nidifikazioari buruzko azterlan bereziak egitea KBEaren larre eta sastraken landaketa eremu guztietan eta trantsektuekin osatutako eremu periferikoa mahasti eremuetan.

<b>Jarduerak</b>	<p>51. Eguneko lepidopteroen jarraipena jasotzea agroekosistemaren egoera ekologikoaren bilakaeraren adierazle gisa.</p> <p>52. Intereseko flora espezieak, besteak beste, orkideak, antzematera bideratutako azterlan botaniko zehatzak egitea.</p> <p>53. Larreen komunitateen espazio eta denbora bilakaeraren segimendu protokoloa ezartzea, aireko analisiaren eta lursailaren gaineko kontrol partzelen ezarpenaren bidez, larre eta erromerodien "kalitate indize" baten definizioarekin eta Segimendu Planean txertatzea. Indize konposatu horrek gutxienez honako alderdi hauek izan beharko ditu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bereizgarria den floraren aniztasuna, ugaritasuna, egoera eta joera (katalogo floristikoan oinarrituta).</li> <li>- Landarediaren estalduraren eta altueraren %.</li> <li>- Espazio irekien hegaztien egoera eta joera.</li> <li>- Espazio irekietako lepidopteroen ugaritasuna eta aniztasuna.</li> <li>- Espazio irekietako narrastien ugaritasuna eta aniztasuna</li> </ul> <p>54. Nekazaritzako partzelen jabeengan eta Laguardiako bisitariengan garrantzia ekologikoari eta belardi eta sastraken espazioetan ematen den ingurumen zerbitzuari buruzko kontzientziario jarduketak sustatzea.</p>
------------------	---

#### 2.4. ANFIBIOAK

<b>4. Azken helburua</b>	<b>Habitataren baldintza orokorrak hobetzea anfibioen espezieetarako.</b>
<b>4.1 helburu operatiboa</b>	<b>Harrapatzearen ondoriozko hilkortasun faktoreak murriztea.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>55. A-124aren beheko egungo ur pasabidea anfibioak bereziki igartzeko diseinatutako faunaren pasabide gisa egokitzea.</p> <p>56. Aintziren ingurunekeo bide asfaltatuak anfibioen edo interesa izan dezaketen beste espezie batzuen presentziari arreta eskaintzeko seinale berezien bidez seinalezatzea.</p>
<b>4.2 helburu operatiboa</b>	<b>Espazioan dauden anfibioen populazioen ezaugarriak zehaztea.</b>
<b>Jarduerak</b>	<p>57. Anfibioen segimendu protokoloa aplikatzea, urte barruko eta urte arteko populazio dinamikak aztertzeko, aintzira konplexuaren erregimen hidrokologikoei dagokienez.</p>

### 3. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

#### 3.1. BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA

<b>5. Azken helburua</b>	<b>Ahalik eta zehaztasun gehienez ezagutzea Laguardiako Aintzirak KBEaren eta Biotopo Babestuaren biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta zein den kontserbazio egokirako egoera, bai eta galera edo suntsiketa eragin dezaketen kausak zein diren zehaztea ere, horrela, epe luzearako mantentzea bermatu dezaketen beharrezko neurriak berriro diseinatzeke eta egokitzeko.</b>
<b>5.1 helburu operatiboa</b>	<b>Aldian behin eguneratzen den kartografia izatea kontserbaziorako interesekoak diren habitat guztietarako, bai eta dibertsitate biologikorako eta integritate ekologikorako garrantzitsuak diren elementu edo gunen naturalena edo kulturalena ere.</b>
<b>Jarduerak</b>	58. Protokolo bat definitzea, aldian behin landaredia mapa eta EUNIS habitaten mapa eguneratzeko. 59. Turismo bulegoan edo Laguardia udalerriko beste lokal batean KBEari, Biotopo Babestuari eta inguruetako ingurumen informazioa duen dokumentazioa eduki dadila sustatzea; material horretan sortzen doan informazio guztia jasotzen joango da. 60. "Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal georreferentziatua" sortzea, bai KBEan, bai Biotopo Babestuan, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilera txikietarako, aldi baterako putzu eginda dauden lurretarako, urmaeletarako, heskaietarako, landa bideetarako, bidexketarako, azalratze geologikoetarako etab.
<b>5.2 helburu operatiboa</b>	<b>Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen eta funtsezko elementuen edo kudeaketaren helburu diren kontserbazio egoera ezagutzea.</b>
<b>Jarduerak</b>	61. Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzentarauaren 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrak betetze aldera.
<b>5.3 helburu operatiboa</b>	<b>Kalkulu bat edukitzea KBEaren biologia aniztasunak duen balio ekonomikoarena, baita Biotopo Babestuarena eta ekosistema autoktonoek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuena ere.</b>
<b>Jarduerak</b>	62. Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta, izatekotan, errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa. 63. Aztertzea Laguardiako Aintzirak KBEaren biologia aniztasunak duen balio ekonomikoa, baita Biotopo Babestuarena eta ekosistema autoktonoek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuena ere.

<b>5.4 helburu operatiboa</b>	<b>KBeko eta inguruko basa faunaren heriotza ez naturala adierazteko mapa bat egitea, bertan puntu beltzak adierazita.</b>
<b>Gidalerroak</b>	1G.- Natura Babesteko Batzorde Nazionalak onetsitako "Pozoidura Kasuetan Jarduteko Protokoloa" aplikatzea, eta adituen frogak legezko berme guztiekin egiteko gomendioak jasotzen dituen dokumentu teknikoa egitea.
<b>Jarduerak</b>	64. Urtero Laguardiako Aintzirak KBetik, Biotopo Babestutik eta bere inguruetik datozen Martiodako Basa Faunaren Berreskurapen Zentroan sartzen diren basa espezieen erregistroak batzea. 65. Lurraldean dauden biztanle, nekazari, mahastizain, ehiztarien elkarte, sindikatu eta beste kolektibo batzuei erregistro honen berri ematea, administrazio eskuduneko langileei begiztatzeetan parte hartu eta horien ekarpena egiteko. 66. Eskuratutako informazioaren bidez, istripu ugariko guneen mapa egitea. Aldian behin, mapa eguneratzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko. 67. Urtero, basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egitea, eta, horrela, interesa duten pertsonak eta erakundeak horretara jo ahal izatea bermatzea.

### 3.2. KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTAIDETZA ETA HERRITARREN KONTZIENTZIA

<b>6. Azken helburua</b>	<b>Gizarte parte hartzea sustatzea Laguardiako Aintzirak KBEn eta Biotopo Babestuan eraginda duten erabakiak hartzeko prozesuetan, bai eta herritarren inplikazio ere horren kontserbazioan.</b>
<b>6.1 helburu operatiboa</b>	<b>Aldian behin herritarrei KBEn/Biotopo Babestuan biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazio ulergarria zabaltzea, bai eta ingurumeneko laguntzei, egoera ahulak dakartzaten kausei, horren inguruko politika publikoei eta emaitzei buruzko informazioa ere.</b>
<b>Gidalerroak</b>	2G.- Laguardiako Aintzirak KBEn eta bere Biotopo Babestuan egindako edozein ikerketa, azterketa, lan eta abarren zabalkundeari bide ematea eta, horretarako, jendaurrean jartzea emaitzak, Interneten, hitzaldien, hizketen, argitalpenen eta abarren bidez (bere unean erabakiko du zabalkunde honen formatua edo formatuak).
<b>Jarduerak</b>	68. Atal berezia sortzea Arabako Foru Aldundiaren web orrian, Laguardiako Aintzirak KBeari eta Biotopo Babestuari eskainia, eta eguneratze mekanismoa aurreikustea, eta, horretarako, espazioan garatutako lanak eta eskuratutako emaitzak zabaltzea. 69. Flora eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontserbazio neurriei buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplika daitezkeen gizarte sektoreei zuzenduta. KBearen, Biotopo Babestuaren eta Natura 2000 Sarearen gaineko informazio panelak jartzea Laguardia udalerrian.

<b>Jarduerak</b>	<p>70. KBEari eta bere helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeko aldizkako ebaluazioak egitea; horrela, komunikazio, heziketa eta kontzientziazte ekintzak berriro orientatu ahal izango dira.</p> <p>71. Administrazioen eta KBE inguruetan dauden ehiza esparruen zaindaritza zerbitzuetara bideratutako prestakuntza jarduerak sustatzea, uretako hegaztien espezieen biologiari eta problematikari buruzko ezagutzak, egungo egoera eta dokumentu honen edukari buruzko problematika hobetzeko.</p> <p>72. KBE/Biotopoen sortutako produktuen marka bereizgarri bat sartzeko aztertu eta sustatzea, besteak beste, ardoa, espazioa kudeatzeko neurriekin bat datozen prozedurekin.</p> <p>73. Laguardiako hiriguneko mendebaldeko edo hego-mendebaldeko hegalean paisaia interpretatzeko behatokia eraikitzea, bertatik lau ur gorputzak eta endorreismoaren fenomenoak kokatu eta interpretatu ahal izateko.</p> <p>74. Paisaiaren interpretazio behatokia eraikitzea, txikia eta ingurunera egokitzen dena, Musco eta Carravalseca aintziren artean.</p> <p>75. Instalazio noturistikokoak edo museistikoak dituzten upeltegietako batekin akordioak egitea, horietan espazio naturalari buruzko informazio berezia kokatzeko edo sartzeko.</p> <p>76. Ebro Haraneko paisaia endorreikoak eta biodibertsitateko mahastizaintzako eta ardogintzako konpatibilizazio ekimenak ezagutzeko eta horiei balioa emateko sareko ekimena sustatzea, onlineko informazio bereziarekin.</p> <p>77. Hegaztiak eta biodibertsitatea, gatza eta ardoa lotzen dituzten jarduerak diseinatzea, aintzira endorreikoen eta mahastizaintzako eta ardogintzako jardueraren ondare naturala behatzeko eta interpretatzeko aukera ematen duena.</p>
------------------	--

### 3.3. GOBERNAMENDUA

<b>7. Azken helburua</b>	<b>Organo publiko eskudun guztien erakunde koordinazioa hobetzea eta ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentu honen helburuarekin eta xedeekin eta horiek lortzeko ezartzen dituen jardura, jarraibide eta araukin bat etortzeko.</b>
<b>7.1 helburu operatiboa</b>	<b>Batzorde tekniko iraunkorra sortzea, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Laguardiako Udalaren arteko jarduketak koordinatzeko, KBE/Biotopo Babestuan.</b>
<b>Jarduerak</b>	78. Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Laguardiako Udalaren, eraginpean dauden sektoreak ordezkatzen dituzten erakunde eta antolakundeen, eta beste hainbaten arteko tokapetarako zeharkako foroa sortzea, alde batetik, KBEaren eta Biotopo Babestuaren kudeaketa dokumentuaren arauketak, neurriak eta gainerako xedapenak aplikatzen laguntzeko eta, bestetik, informazioa partekatzeko. Jarraipen organo hori, gehienez, KBE izendatu eta urtebetera eratu beharko da.

**3.4. ZEHARKAKO BESTE JARDUERA BATZUK**

<b>8. Azken helburua</b>	<b>Inguruko beste KBE espazio batzuekin konektibitatea dagoela ziurtatzea.</b>
<b>8.1 helburu operatiboa</b>	<b>KBEaren konektibitatea hobetzea.</b>
<b>Gidalerroak</b>	<p>3G.- Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzea, KBEan eta Biotopo Babestuan batasunaren intereseko edota lehentasunezko habitaten arteko lotura bultzatzeko, bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitat katalogatu batzuekin eta orokorrean mugakide diren eta ingurumen aldetik interesa duten esparruekin ere. Konektibitatearen aldetik interesgarriak diren eremuak identifikatzea, eta horiek kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea.</p> <p>4G.- Ingurumen arloan interes handikoak diren eremuak lotzen dituzten baso basa txikiak eta heskaien identifikazioa eta kartografia sustatuko da, bai KBEaren barruan eta bere Babesgune Periferikoan, bai bere ingurunean. Kartografia egin ondoren, heskaiak, baso masa txikiak eta isurketa edo erreka bide garrantzitsuenak hautatuko dira eta horiek kontserbatzeko neurriak proposatu.</p>
<b>Jarduerak</b>	<p>79. Lursail pribatuetako jabeekin akordioak sustatzea, Babesgune Periferikoaren eremuan konektibitate ekologikorako interes espazioak kontserbatzea bultzatzeko.</p> <p>80. Babesgune Periferikoaren inguruko guneeetan edo horietatik hurbil daudenetan, gaur egun landaredi natural belarkaraz, zuhaixka formakoaz edota zuhaizkaraz estalita daudenetan, habitatak kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak sustatzea.</p> <p>81. Inpaktuen eraginpean dauden arloak berreskuratzea (higadurak, antzinako legar hobiak eta harrobiak etab.), eta, horretarako, espazio horien ingurumen lehengoratzea aurreikustea.</p> <p>82. Inguruko nekazari guztiei heskaien eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.</p> <p>83. Kontrolik gabeko isurketak eta bestelako eraginak jasaten dituzten gunek leheneratzea; horretarako, hau aurreikusiko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hondakinak kentzea, eta geroago tratatu eta behar bezala kudeatzea.</li> <li>- Hondatuta dauden espazioak ingurumen aldetik leheneratzea, babestutako habitatak leheneratzeko.</li> </ul>



#### **4. JARDUEREN KOSTUAREN GUTXI GORABEHERAKO KALKULU EKONOMIKOA**

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legearen testu bateratua onartzen duenak, 22. artikuluan ezartzen duena betetzeko, jarraian programa honetako jarduera eta neurriei dagozkien kalkulu ekonomikoak zehaztuko dira.

22.3. artikulua:

*Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko dituen 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako baterako finantzaketa komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak.*

Jarraian, aipatu den 8. artikuluko hori transkribatuko da, zehazki 1. eta 2. puntuak:

*1. Kontserbazio bereziko eremu izendatu ahal diren eta barnean lehentasunezko habitat naturalak edota lehentasunezko espezieak dituzten lekuei buruz proposamenak egiten dituzten aldi berean, Estatu kideek Batzordeari haien kalkuluak bidaliko dizkiote, bidezkoa denean, Europako Batasunaren finantzaketari buruz egokitzat jotzen dutena dela-eta, 6. artikuluko 1. idatz zatian hitzartuta dagoenaren arabera haien betebeharrak bete ahal izateko.*

*2. Estatu kide bakoitzarekin ados jarrita, finantzaketa eskatzen deneko leku garrantzitsuetarako, Batzordeak zehaztuko ditu ezinbestekoak diren neurriak, lehentasunezko habitat naturalen kontserbazio egoera mantendu edo leheneratzeko, eta neurri horien ondoriozko kostu osoak ere zehaztuko ditu.*

**2.1.- UR GEZAKO HABITATAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK**

<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
1.	Prado de la Pauleko urmaelara doan ur horniduraren puntua hobetzea, San Julian ibaiko bilketa sarreraren eremuan, eta, horretarako, ibaiertzaraino eta landareztatzeraino lotunerako 15 metro luze duen lurpeko tutua eraikitzea, tamariz eta ihidien landaketaren bidez; halaber, trantsizio eremua sortzea, legar hondoarekin, iragaztea - dekantazioa hobe izateko.	<b>20.000</b>
2.	Ur maila kontrolatzeko sistema ezartzea Prado de la Paul urmaelean, eta, horretarako, ponpaketa instalazio bat eta sarrerarako eta irteerarako konportak baliatzea, neguan eta udaberrian gehieneko ur mailak, uda amaieran lehorketa eta udazkenean urperatzea dituen erregimen fluktuatzailea lortzeko.	<b>20.000</b>
3.	Aintzira basoaren hondoko sedimentuen aldiari behingo dragatzea aztertu eta gauzatzea, hala badagokio, urmaelaren lehorte/hustuketa uneak aprobetxatuz.	<b>10.000</b>
4.	Dauden espezie aloktonoen populazioen azterlanak egitea.	<b>10.000</b>
5.	Arrain eta ornogabe aloktonoen espezieen biomasa minimizatzea, harrapaketarako eta hilketarako kanpainen bidez.	<b>10.000</b>
6.	Arabako Errioxako biztanleen artean, ingurumen hezkuntza bereziaren inguruko kanpaina bat egitea, Prado de la Paulen eta beste edozein habitat motatan espezie inbaditzaile aloktonoak sartzek dakartzan ingurumen arazo serioei buruz.	<b>9.000</b>
7.	Arabako beste hezegune batzuetatik datozen basa eta lohien ekarpena aztertzea eta gauzatzea, hala badagokio, helofitoen eta intereseko uretako floraren presentzia onarekin.	<b>5.000</b>
8.	Arro hidrografikoetan dauden mahastizaintzako eta ardogintzako partzela eta/edo esplotazio bakoitzerako birmoldaketa plan bat idaztea, abiapuntu egoera aztertuz, lortu nahi diren helburuak definituz eta birmoldaketarako behar den denbora ezarri.	<b>10.000</b>
9.	Lurraideko kontratu sistema bat ezartzea, partzela bakoitzerako espezifikotasunekin, nekazaritzako eta ingurumeneko neurri berezien/ingurumen zerbitzuen arabera ordaintzen/lau aintziretako arro hidrografikoetan dauden mahastizaintzako eta ardogintzako ustiapenatarako pizgarrien ezarpenean oinarrituta.	-
10.	Prado de la Pauleko inguruko partzeletako hondar, lur, harri eta eraikuntza materialak ingurutik kentzea.	<b>5.000</b>
11.	Zuhaitz eta zuhaixka landaketak indartzea, landaredia pantaila gisa, Prado de la Paulen helofitoen orlaren eta bide perimetralaren artean, eragozpenak murrizteko.	<b>5.000</b>

III. eranskina. ES2110021 KBEa, Laguardiako Aintzirak / Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestua 2017ko urtarrila

16

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
12.	Prao de la Paulen ipar-ekialdeko mugan makalen eta txopoen landaketa duen erriberako basoaren eremu zabala eta konpaktua eratzea eta, horretarako, gaur egun landaredia naturalekoak diren partzelak aprobetxatzea eta bide perimetrala partzela horien kanpo mugatik desbideratzea.	40.000
13.	Lursailen erostaketa sustatzea edo akordio bereziak ezartzea jabeekin, gutxienez 20 metroko kudeaketa partekatuko tartetarteko, landaredia naturalaren kanpoko mugatik edo bide perimetraletik Prao de la Paulen kasuan.	80.000
14.	Pixkanaka aintziraren inguruko zuhaitz eta zuhaixka aloktonoko landaredia ezabatzea eta, horren ordez, erriberako berezko espezieak jartzea.	10.000
15.	Prao de la Paulen behatokia berritzea, ingurumen arloan egokiak diren materialekin eta paisaian eta mugari geografikoetan fokalizatuago dagoen seinaleztapenarekin.	10.000
16.	Espazio naturalerako interpretazio seinaleztapenaren sistema osatzeko, larre erkidegoei buruzko, mahastiaren landaketari eta haren esanahi biologikoari buruzko eta intereseko flora espezieei -besteak beste, orkideak- buruzko panelak ezartzea.	6.000
17.	Ibilbide osasungarria prestatzea, aire zabaleko paseo jardueraren onurei buruzko eta Laguardiako nukleoa lau aintzirekin lotzen dituen paisaiaren behaketari buruzko informazio bereziarekin, A-124 errepidearen gaineko seinaleztapena duen paso egokia barne.	10.000
18.	Bideen norabide seinaleztapenaren sistema uniformatzea eta, horretarako, poste kopurua eta seinaleztapen elementuak murriztea.	2.000
19.	Hegaztien behatoki berria gaitzea, eragozpenak saihesteko aintziraren hegoaldeko hegalean.	20.000
20.	Hegoaldeko sarbidean erabilera publikoko azpiegitura berriak sartzeko, besteak beste, bizikiletak aparkatzeko gailua eta erabilera eta gomendioen karteldegia.	3.000
21.	Landaredia naturalaren gunearen kanporantz bide perimetralaren aldaketa posibleak aztertzea, kudeaketako funtsezko elementuak diren hegaztien espezieen nidifikazioarekin gatazka sortu daitekeen arloetan.	2.000
22.	Lezkari arruntten, lezkari karratxinaren, tximutxaren, txilimporta txikiaren eta murgil handiaren bikoteen urteko zentsuak.	4.000
23.	Erriberako basoko kalitatearen hegazti adierazle espezieen urteko zentsuak (diliindaria, lepizullia, pizidoak oro har).	4.000

III. eranskina. ES2110021 KBEa, Laguardiako Aintzirak / Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestua 2017ko urtarrila

<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
24.	Mustelidoen espezieen jarraipena egiteko azterlan berezia, bereziki bisoi europarrarena eta igarabarena, Prao de la Paulen dauden igarabena.	<b>5.000</b>
25.	Pausalekuak ezartzea, zingira mirotzarentzat, Prao de la Paulen erdigunerako, aintziraren hondoan finkatutako enborren bidez.	<b>2.000</b>
26.	Prao de la Paulen zuhaitz eroriak kokatzea, azaleratutako aldeekin, ardeidoen pausalekuetarako bide emateko.	<b>2.000</b>
27.	Odonatuen populazioak, tximeletak eta/edo intereseko beste espezie ornogabe batzuk eta denboran izan duten bilakaera aztertzea.	<b>4.000</b>
<b>2.2.- AINTZIRA ENDORREIKOAK ETA HABITATAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK</b>		
<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
28.	Landaredia haloflorako azalera egokia okupatzen duten harri, zabor edo elementu arrotzak kentzea habitat potentzialeko eremuan.	<b>6.000</b>
29.	Tamariz hesiak landatzea aintzira basoetarantz pertsona eta makinek igarotzeko ohiko gatazka guneetan, ertzetik 5 metroko distantziara.	<b>10.000</b>
30.	Carraloprofooko ertzean dauden <i>Elaeagnus angustifolia</i> ko oinak ezabatzea.	<b>3.000</b>
31.	Carravalsecan dauden egitura artifizialak ezabatzea.	<b>5.000</b>
32.	Lursailen erosteta sustatzea edo akordio zehatzak ezartzea partzela pribatuetako jabeekin, KBEak kudeaketa partekatuko edo publikoko gutxieneko 20 metroko tartear hormitzeko, aintziren periferian landaredia naturalaren kanpoko egungo mugatik.	<b>90.000</b>
33.	Kubetaren sedimentuaren egitura eta haren iragazgaitasuna berreskuratzeko neurri egokienei buruzko azterlan berezi aditua egitea, neurri horiek gauzatu.	<b>4.000</b>
34.	Bazkaleku ez halofloen biomasa ezabatzea udaberrian, uzten bidez, materia organiko guztia alde batera utziz.	<b>15.000</b>

III. eranskina. ES2110021 KBEa, Laguardiako Aintzirak / Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestua 2017ko urtarrila

<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
35.	Espezie halofiloen ereintza eta landaketen sailok egitea Muscoco eremuik lehorrenetan, Carrallogroñon eta Carravalsecan dauden espezieen propagulo eta haziek.	<b>10.000</b>
36.	A-124 errepedeko euri uren ebakuazio eta iragazte sistema diseinatzea, Carrallogroñoko arro hidrografikotik kanpora.	<b>15.000</b>
37.	Iragazki berdeko sistema landareztatu eta ezartzea, lezkadi eta erriberako zuhaitzi bidez (tamariza/sahastia), A-124 errepedearen azpiko pasantetik Carrallogroñoko aintzirara sartu aurreko landaredia naturaleko gunera.	<b>10.000</b>
38.	Komunitate halofiloen garapena jarraitzea, neurrien ezarpenean oinarrituta, eta hasierako faseetan jardutea, 1410 habitataren garapena -besteak beste, <i>Tamarix</i> , <i>Salsola</i> , <i>Atriplex</i> edo beste batzuk- zailtzen duten espezie halotoleranteak bat-batean ez ezartzeko eta, beraz, kalitatezko habitaten hedapenari bide emateko.	<b>4.000</b>
39.	Xehetasun kartografia egitea, 1410 habitata 1510*-etik eta beste batzuetatik bereizteko.	<b>4.000</b>
40.	Gune horren eraketa floristikoa zehaztea, azterlan berezi baten bidez, non mehatxupeko floraren espezieak daudela egiaztatzen baita.	<b>4.000</b>
41.	Uretako makrofitoei buruzko azterlan bereziak betetze uneetan, eta arreta berezia eskaintzea antzina aipatutako espezie arraroak agertzeari (besteak beste, <i>Tolypella salina</i> ), gutxienez sei hilean behin, baldintza hidrologiko egokiak badagoz.	<b>4.000</b>
42.	Erlazio funtzionala duten hezeguneetako beste espazio batzuetako ikertzaila eta kudeatzaileekin informazioa partekatzea, eta, horretarako, urrutien dauden hezegune horietan eta Prao de la Paulen zentsuak egiteko data eta tekniketan ere koordinazioa bilatzea, elkarri lotutako prozesuak hobeto ulertzeko.	-
43.	Laguardiako aintziretan, autonomia mailako edo autonomiaz gaindiko eremuko ikerketa proiektuen garapenari bide ematea, hezegune endorreikoen biologiar buruzko ezagutzak zabaltzeko egin daitezkeenak.	<b>6.000</b>

III. eranskina. ES2110021 KBEa, Laguardiako Aintzirak / Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestua 2017ko urtarrila

**2.3.- LARREAK ETA ERROMERODIAK ETA LOTUTAKO ESPEZIEAK**

<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>	<b>KOSTUA (€)</b>
44. Kontserbazio egoera onean mantentzea KBEaren eta babeseko gune periferikoaren barruko partzela publikoetan dauden larre xerofiloen laginak eta, horretarako, soilte selektiborako neurriak aplikatzea.	<b>10.000</b>
45. Habitat hori soiltearen/erentzaren bidez berrezartzea eta, horretarako, habitat hori ez duten partzela ez landuetan gero mantentzea, eta Musco eta Carravalseca arteko partzela publikoen gainean eta hezeguneetan desjabetze orlan eginiko jarduketak batzuk berriro zuzentzea.	<b>10.000</b>
46. Batasunaren intereseko larreetako azalerak "balio natural handiko nekazaritzako gune" gisa jasotzea.	-
47. Albizti eta sastraken laginak dituzten jabe pribatuekin ingurumen kontratuen sinadura sustatzea, espazio ireki horiek kontserbazio egoera onean mantentzeko eta mantentze lanek eragindako ingurumeneko kanpo efektu positiboak saritzeko.	<b>40.000</b>
48. Babesgune Periferikoaren barruan mahastien partzelen mugakideetan marjinak eta arboladi hesiak berreskuratzeko plana egitea, zuhaitza arantzatsuen landaketa eta pausalekuen ezarpena barne.	<b>4.000</b>
49. Elementu tradizionalak berreskuratzea, besteak beste, mahastiak zaintzeko eraikinak eta hormatxoak, eta neurriak sustatzea intereseko faunak eta florak erabiltzeko, KBEaren eta Babesgune Periferikoaren eremu osoan.	<b>10.000</b>
50. Lotutako informazioarekin, gune beltzen mapa bat egitea; bertan, honako hauei buruzko informazio georreferentziatua jasoko da: linea elektrikoaren edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkak eta elektrokutatuta, tiroz, pozoiz, harrapatuta edota heriotza ez naturalen ohiko beste edozein arrazoigatik gertatutako heriotzak. Neurri zuzentzaileen proposamena.	<b>4.000</b>
51. Eguneko lepidopteroen jarraipena jasotzea agroekosistemaren egoera ekologikoaren bilakaeraren adierazle gisa.	<b>4.000</b>
52. Intereseko flora espezieak, besteak beste, orkideak, antzematera bideratutako azterlan botaniko zehatzak egitea.	<b>6.000</b>
53. Larreen komunitateen espazio eta denbora bilakaeraren segimendu protokoloa ezartzea, aireko analisiaren eta lursailaren gaineko kontrol partzelen ezarpenaren bidez, larre eta erromerodien "kalitate indize" baten definizioarekin eta Segimendu Planean txertatzea.	<b>6.000</b>
54. Nekazaritzako partzelen jabeengan eta Laguardiako bisitariengan garrantzia ekologikoari eta belardi eta sastraken espazioetan ematen den ingurumen zerbitzuari buruzko kontzientziazio jarduketak sustatzea.	<b>6.000</b>

III. eranskina. ES2110021 KBEa, Laguardiako Aintzirak / Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestua 2017ko urtarrila

20

**2.4.- ANFIBIOAK**

NEURRIA EDO JARDUERA	KOSTUA (€)
55. A-124aren beheko egungo ur pasabidea anfibioak bereziki igarotzeko diseinatutako faunaren pasabide gisa egokitzea.	<b>5.000</b>
56. Aintziren ingurunekeo bide asfaltatuak anfibioen edo interesa izan dezaketen beste espezie batzuen presentziari arreta eskaintzeko seinale berezien bidez seinaleztatzea.	<b>6.000</b>
57. Anfibioen segimendu protokoloa aplikatzea, urte barruko eta urte arteko populazio dinamikak aztertzeko, aintzira konplexuaren erregimen hidrokologikoei dagokienez.	<b>10.000</b>

**3.- KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK****3.1.- Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa**

NEURRIA EDO JARDUERA	KOSTUA (€)
58. Protokolo bat definitzea, aldian behin landaredia mapa eta EUNIS habitaten mapa eguneratzeko.	-
59. Turismo bulegoan edo Laguardia udalerriko beste lokal batean KBEari, Biotopo Babestuari eta inguruetakoko ingurumen informazioa duen dokumentazio zentroa eduki dadila sustatzea; material horretan sortzen doan informazio guztia jasotzen joango da.	<b>5.000</b>
60. "Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal georreferentziatua" sortzea, bai KBEan, bai Biotopo Babestuan.	<b>15.000</b>
61. Babes bereziko araubidean dauden basa habitat eta espezie guztien kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea.	<b>3.000</b>
62. Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta, izatekotan, errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa.	<b>6.000</b>

<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
63.	Aztertzea Laguardiako Aintzirak KBEaren biologia aniztasunak duen balio ekonomikoa, baita Biotopo Babestuarena eta ekosistema autoktonoek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuena ere.	<b>6.000</b>
64.	Urtero Laguardiako Aintzirak KBEtik eta bere inguruetatik datozten Martiodako Basa Faunaren Berreskurapen Zentroan sartzen diren basa espezieen erregistroak urtero batzea.	<b>3.000</b>
65.	Lurraldean dauden biztanle, nekazari, mahastizain, ehiztarien elkarre, sindikatu eta beste kolektibo batzuei erregistro honen berri ematea, administrazio eskuduneko langileei begiztazteetan parte hartu eta horien ekarpena egiteko.	<b>3.000</b>
66.	Eskuratutako informazioaren bidez, istripu ugariko guneen mapa egingo da. Mapa aldi berean eguneratzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko.	<b>4.000</b>
67.	Urtero, basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egitea, eta, horrela, interesa duten pertsonak eta erakundeak horretara jo ahal izatea bermatzea.	<b>3.000</b>
<b>3.2.- Komunikazioa, hezkuntza, partaidetza eta herritarren kontzientzia</b>		
<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
68.	Atal berezia sortzea Arabako Foru Aldundiaren web orrian, Laguardiako Aintzirak KBEari eta Biotopo Babestuari eskainia, eta eguneratze mekanismoa aurreikustea, eta, horretarako, espazioan garatutako lanak eta eskuratutako emaitzak zabaltzea.	-
69.	Flora eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontserbazio neurri buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplika ditezkeen gizarte sektoreei zuzenduta. KBEaren, Biotopo Babestuaren eta 2000 Natura Sarearen gaineko informazio panelak jartzea Laguardia udalerrian.	<b>6.000</b>
70.	Aldizkako ebaluazioak egitea KBEari eta haren helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeko; horrela, komunikazio, heziketa eta kontzientziazte ekintzak berrirorientatu ahal izango dira.	<b>6.000</b>
71.	KBEaren/biotopo babestuaren ezagutzak hobetzeko zaindaritza zerbitzuetara bideratutako prestakuntza jarduerak sustatzea.	<b>4.000</b>
72.	KBE/Biotopoen sortutako produktuen marka bereizgarri bat sartzeko aztertu eta sustatzea, besteak beste, ardoa, espazioa kudeatzeko neurriekin bat datozen prozedurekin.	<b>6.000</b>

III. eranskina. ES2110021 KBEa, Laguardiako Aintzirak / Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestua 2017ko urtarrila



<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
73.	Laguardiako hiriguneko mendebaldeko edo hego-mendebaldeko hegalean paisaia interpretatzeko behatokia eraikitzea, bertatik lau ur gorputzak eta endorreismoaren fenomenoak kokatu eta interpretatu ahal izateko.	<b>20.000</b>
74.	Paisaiaren interpretazio behatokia eraikitzea, txikia eta ingurunera egokitzen dena, Musco eta Carravalseca aintziren artean.	<b>10.000</b>
75.	Instalazio enoturistikoak edo museistikoak dituzten upeltegietako batekin akordioak egitea, horietan espazio naturalari buruzko informazio berezia kokatzeko edo sartzeko.	-
76.	Ebro Haraneko paisaia endorreikoak eta biodibertsitateko mahastizaintzako eta ardogintzako konpatibilizazio ekimenak ezagutzeko eta horiei balioa emateko sareko ekimena sustatzea, onlineko informazio bereziarekin.	<b>6.000</b>
77.	Hegaztiak eta biodibertsitatea, gatzta eta ardoa lotzen dituzten jarduerak diseinatzea, aintzira endorreikoen eta mahastizaintzako eta ardogintzako jardueraren ondare naturala behatzeko eta interpretatzeko aukera ematen duena.	<b>6.000</b>
<b>3.3.- Gobernamendua</b>		
<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
78.	Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Laguardiako Udalaren, eraginpean dauden sektoreak ordezkatzeko dituzten erakunde eta antolakundeak, eta beste hainbat arteko tokapetarako zeharkako foroak sortzea, alde batetik, KBEaren eta Biotopo Babestuaren kudeaketa dokumentuaren arauketak, neurriak eta gainerako xedapenak aplikatzeko laguntzeko eta, bestetik, informazioa partekatzeko. Jarraipen organo hori, gehienez, KBE izendatu eta urtebeterra eratu beharko da.	<b>4.000</b>

**3.4.- Zeharkako beste jarduera batzuk**

<b>NEURRIA EDO JARDUERA</b>		<b>KOSTUA (€)</b>
79.	Lursail pribatuetoako jabeekin akordioak sustatzea, Babesgune Periferikoaren eremuan konektibitate ekologikorako interes espazioak kontserbatzea bultzatzeko.	<b>2.000</b>
80.	Babesgune Periferikoaren inguruko guneetan edo horietatik hurbil daudenetan, gaur egun landaredi natural belarkaraz, zuhaixka formakoaz edota zuhaizkaraz estalita daudenetan, habitatak kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak sustatzea.	<b>10.000</b>
81.	Impaktuen eraginpean dauden arloak berreskuratzea (higadurak, antzinako legar hobiak eta harrobiak etab.), eta, horretarako, espazio horien ingurumen lehengoratzeari aurreikustea.	<b>15.000</b>
82.	Inguruko nekazari guztiei heskaiei eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.	<b>4.000</b>
83.	Kontrolrik gabeko isurketak eta bestelako eraginak jasaten dituzten guneak leheneratzea; horretarako, hau aurreikusiko da: hondakinak kentzea eta gerora halakoak tratatu eta behar bezala kudeatzea, eta hondatutako guneak ingurumen aldetik lehengoratzeari, babestutako habitatak lehengoratzeko.	<b>15.000</b>

**JARDUEREN KOSTUA, GUZTIRA****781.000 euro**

III. eranskina. ES2110021 KBEa, Laguardiako Aintzirak / Laguardiako Aintziraguneko Biotopo Babestua 2017ko urtarrila

24